



SAMSUNG

SGH-i200

Erabiltzailearen eskuliburua



Euskaratek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Baliteke eskuliburu honen edukia zure gailuarekin erabat bat ez etortzea, gailuaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

SAMSUNG ELECTRONICS



Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNG-ek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

World Wide Web

<http://www.samsungmobile.com>

Spanish. 12/2008. 1.0. berrikuspena

Zure gailuaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau. Bizkor hasteko, ikus Bizkor hasteko gida.



Gailua konfiguratzeari buruzko informazio gehiago duzu hasierako menuko **Introducción** atalean. Hasierako pantailaren gaia taula lerragarriarekin konfiguraturaz gero, **Introducción** menua hasierako pantailan agertzen da.

Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:



Kontuz: zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



Ohartarazpena: zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.

Oharra: oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.



Ikus: lotutako informazioa duten orrialdeak. Adibidez: ► 12. or. (hauxe esan nahi du: “ikus 12. orrialdea”).



Ondoren: pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Sakatu <**Inicio**> → <**Todos programas**> → **Cámara** (adierazten du **Inicio** sakatu behar duzula; ondoren, **Todos programas** sakatu behar duzula, eta, azkenik, **Cámara**).



Kortxeteak: telefonoaren teklak; adibidez: [⓪] (pizteko tekla adierazten du).

<> *Parentesi angeluarrak:* pantaila bakoitzean hainbat funtzio kontrolatzen dituzten funtzio-teklak; adibidez: <**Aceptar**> (**Aceptar** funtzio-tekla adierazten du)

Copyright-i eta marka komertzialei buruzko informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira.

- Java® Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala da.



- Bluetooth SIG, Inc.-en marka erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan. Bluetooth QD ID: B013854

- Produktu honek MSren lizentzia duen software bat du; MS Microsoft Corporation-en filial bat da. Microsoft eta Microsoft-en izena daraman edozein software Microsoft Corporation-en marka erregistratuak dira. Produktu hau erabili aurretik, ikus WINDOWS MOBILE 6 ERABILTZeko MICROSOFT SOFTWAREAREN LIZENTZIA-BALDINTZEI buruzko hitzarmenaren atala, eskuliburu honen amaieran, eskubideei eta murrizketei buruzko informazioa izateko.



Edukia

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa .. 4

1. Komunikazioa12

Deiak12

Mezularitza15

2. Multimedia24

Windows Media24

Kameraren tekla26

Edukien kudeatzailea28

Bideo-errepuzitzailea30

Adobe® Flash® Lite®30

Ahots-oharrak31

3. Produktibitate pertsonala32

Kontaktuak32

Egutegia34

Office Mobile35

ClearVue PDF38

Zereginak38

Fitxategi-administratzailea39

4. Web-a40

Internet Explorer40

Windows Live41

Messenger42

RSS irakurgailua43

Podcast-ak44

5. Konektagarritasuna 46

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea. . . .46

USB bidez konektatzea.48

Gailua sinkronizatzea49

Interneteko konexioa PC batekin partekatzea. . .52

Internetera edo sare pribatu batera konektatzea 53

6. Programa osagarria 55

Jokoak55

Java.....55

Munduko erlojua56

Alarmak.....57

D-Day.....57

Kalkulagailua.....58

Bihurgailu adimendua58

Kronometroa.....59

7. Ezarpenak 61**8. Arazoak konpontzea 75****9. WINDOWS MOBILE 6 ERABILTZEKO MICROSOFT
SOFTWAREAREN LIZENTZIA-BALDINTZEI
buruzko hitzarmena 80****Aurkibidea 91**

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Bete neurri hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta gailuaren errendimendua ahalik eta handiena izatea bermatzeko.



Segurtasunari buruzko oharrak

Ez utzi telefonoa haurren eta etxeko animalien eskueran.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskueran. Pieza txikiek asfixia edo zauri larriak eragin ditzakete, irentsiz gero.

Babestu entzumena



Entzungailuak ozenegi jartzeak entzumena kaltetu dezake. Musika entzuteko edo elkarrizketarako beharrezkoa den gutxieneko bolumen-konfigurazioa erabili.

Kontuz instalatu gailu mugikorrek eta gainerako tresnak

Ziurtatu gailu mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu ziurrean muntatuta daudela. Ez jarri telefonoa eta osagarriak airbag-etik gertu edo airbag-a zabaltzen den tokian. Ibilgailuetarako haririk gabeko ekipoa behar bezala instalatzen ez bada eta airbaga ireki egiten bada, lesio larriak sor daitezke.

Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta bereziki gailuarentzat diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkiokete gailuari.
- Inoiz ez bota bateriak sutara. Bota bateriak tokian tokiko arauen arabera.
- Ez jarri bateriak edo telefonoak beroa sortzen duten gailuen gainean edo barruan, hala nola mikrouhin labeen, berogailuen edo erradiadoreen gainean edo barruan. Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.

Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia gailu mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz. Gailuak taupada-markagailu batean edo beste ekipo medikoren batean interferentziak sortzen dituen zalantza baduzu, itzali gailua berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo ekipo medikoaren fabrikatzailearekin laguntza eskatzeko.

Itzali gailua lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

Ez erabili gailua gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere. Itzali gailua ohar-jarraibideek edo –seinaleek hala adierazten dutenean. Gailuak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaiak eta produktu kimikoak gordetzeko eremuetan eta leherketa-eremuetan edo haien inguruan. Ez biltegitatu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik, gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Testu-mezuak bidaltzean edo gailuko jokoak erabiltzean, eutsi eskua erlaxatuta duzula, kontuz sakatu botoiak, erabili botoi gutxiago sakatzeko funtzioak (adibidez, txantiloiak eta testu prediktiboa) eta maiz hartu atseden.



Segurtasunari buruzko oharrak

Arretaz gidatu beti

Ez erabili gailua gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean gailua erabiltzea debekatzen duten arau guztiak. Ahal duzun guztietan, erabili esku libreko osagarriak segurtasun handiagoa izateko.

Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrek erabiltzea debekutzen duten arau guztiak.

Erabili beti Samsung-ek baimendutako osagarriak

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure gailua kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke.

Itzali gailua ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Gailuak interferentziak sor ditzake ospitaleetako osasuna zaintzeko zentroetako tresna medikoetan.

Bete araudiak, argitaratutako ohartarazpenak eta pertsonal medikoak emandako jarraibideak.

Itzali gailua edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Gailuak interferentziak sor ditzake hegazkinaren tresnerian. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak temperatura hotzegiak edo beroegiak dauden lekuetan (0 °C/32 °F-tik beherakoak edo 45 °C/113 °F-tik gorakoak). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

Kontuz eta arretaz erabili gailua

- Gailua ez da busti behar; likidoek kalte larriak eragin ditzakete. Ez ukitu gailua eskuak bustita dituzula. Urak eragindako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.
- Ez erabili edo gorde gailua eremu zikinetan edo hautsa dagoen eremuetan, pieza mugikorrek kaltetu ez daitezen.

- Gailu elektronikoa konplexuz osatuta dago telefonoa; beraz, babestu ezazu kolpeetatik eta manipulazio zakarretatik, kalte larriak eragiteko.
- Ez margotu gailua; pinturak zati mugikorrek blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatu.
- Ez erabili gailuaren kameraren flasha edo argia haurren edo animalien begietatik hurbil.
- Gailuak eta memoria-txartelak kaltetu egin daitezke eremu magnetikoetan jarriz gero. Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi gailua eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

Saihestu beste ekipo elektronikoekin interferentziak izatea

Gailuak irrati-maiztasuneko seinaleak igortzen dituzte, eta horiek interferentziak eragin ditzakete babestu gabeko edo gaizki babestutako gailuetan, esaterako, taupada-markagailuetan, audifonoetan, etxeetako edo ibilgailuetako ekipo medikoetan. Jarri harremanetan ekipo medikoen fabrikatzailearekin interferentzia-arazoak konpontzeko.

Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

Ez erabili gailua ohiko posizioan ez bada

Saiatu gailuaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

Langile adituei soilik utzi gailuaren mantentze-lanak egiten

Adituak ez diren langileek gailuaren mantentze-lanak eginez gero, telefonoa kalteku daiteke, eta bermea bertan behera utzi.

Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetetz baino gehiagoz; gainkargak iraupena murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabili gabeko bateriak deskargatu egingo dira, eta berriro kargatu behar dira erabili aurretik.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatutako helbururako bakarrik.

Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu txartelik gailua informazioa transferitzen edo erabiltzen ari dela; datuak gal daitezke edo jeta txartela edo telefonoa kaltetu.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste ekipo batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelen bitzta erabilgarria murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait leku edo egoeratan gailutik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

Abortzio espezifikokoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu gailuak.

Arau horiek gehieneko esposizio-maila (absortzio espezifikoko tasa edo SAR deitua) hau da, giza ehunaren kg bakoitzeko 2,0 watt gainditzen duten gailu mugikorren salmenta saihesten dute.

Proba-prozesuan, telefono-modelo honetarako gehieneko SAR balioa 0,876 watt/kg izan zen. Ohiko erabileran, gehieneko balioa baino dezente beherago egon ohi da SAR errealak; izan ere, hurbilen dagoen estaziora seinaleak igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatua da gailua. Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituzenez, gailuak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia.

Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du gailuak betetzen duela telekomunikazioko ekipa terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARI eta horren inguruko EBko arauak buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung-en telefonia mugikorraren web gunea.

Sare mugikorren eta Interneten bidez dei- eta mezu-mota ugari egiteko eta jasotzeko aukera ematen du gailuak.

■ ■ ■ Deiak

Ikasi gailuaren dei-funtzioak erabiltzen. Oinarritzko dei-funtzioak ezagutzeko, ikus Bizkor hasteko gida.




Entzungailuak konektatuta daudenean dei bat jasotzen baduzu, dei-tonua 2. bolumen-mailan hasiko da, entzumena babesteko.

Nazioarteko zenbaki batera deitzea

1. Hasierako pantailan, luze sakatu **[0] +** karakterea sartzeko (nazioarteko sarbide-kodea ordeztzen du).
2. Sakatu zenbaki-teklak markatu nahi duzun zenbaki osoa idazteko (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, sakatu (☞).
3. Deia amaitzeko, sakatu (☞)

Kontaktuen zerrendatik dei bat egitea


1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Contactos> kontaktuen zerrenda irekitzeko.

2. Hautatu kontaktua edo bila ezazu kontaktuaren izenaren lehen letra idatzita.
3. Hautatu markatu nahi duzun zenbakia.
4. Deia amaitzeko, sakatu 



Galdutako deiak ikustea eta horiei erantzutea

Gailuko pantailan agertuko dira galdutako deiak.

Galdutako deiei erantzuteko:

1. Sakatu erdiko tekla.
2. Joan galdutako dei batera.
3. Markatzeko, sakatu .

Llamadas aukeratik deitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Llamadas**.
2. Sakatu <Menú> → **Filtro** → dei-mota bat, dei-mota bakar bat bistaratzeko (aukerakoa).
3. Joan kontaktuaren izenera edo deitu nahi duzun zenbakira eta sakatu  .
4. Deia amaitzeko, sakatu 

Deiak desbideratzea

Baliteke zure sareak edo zerbitzu-hornitzaileak funtzio hau ez onartzea.

Jasotzen dituzun deiak beste zenbaki batera desbideratzeko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> **Ajustes** → **Teléfono**.
2. Hautatu **Llamadas de voz** edo **Videollamadas** → **Desviar llamadas/Reenvío de llamada**.
3. Hautatu berriro bidaltzeko aukeretako bat edo sartu telefono-zenbakia.
4. Sakatu <Listo>.

Deiak murriztea (blokeatzea)

Funtzio hau aktibatzeko, zerbitzu-hornitzaileak deiak murrizteko pasahitza eman behar dizu.

Zenbaki jakin batera deiak murrizteko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Ajustes** → **Teléfono**.
2. Hautatu **Llamadas de voz** edo **Videollamadas** → **Bloquear llamadas/Restricción de llamada**.
3. Hautatu murriztu nahi duzun dei-mota eta hautatu murrizketa-aukera bat.
4. Sartu deiak murrizteko pasahitza eta sakatu <Listo>.



Hiru aldiz segidan deiak murrizteko pasahitza gaizki sartuz gero, gailua blokeatu egingo da. Hori gertatuz gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

■ Mezularitza

Ikasi mezularitzako funtzioak erabiltzen. Testua idazteari buruzko jarraibideak eskuratzeko, ikus Bizkor hasteko gida. Aukeren azalpenak irakurtzeko, ikus “Mezularitzako aukerak” ► 19. or.

Testu-mezua bidaltzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> **Mensajería** → **SMS/MMS**.
2. Sakatu <Menú> → **Nuevo** → **SMS**.
3. Idatzi telefono-zenbakia edo sakatu <Menú> → **Agregar destinatario** kontaktu bat hautatzeko.
4. Joan behera eta idatzi mezuaren testua.

5. Sakatu <Enviar> mezua bidaltzeko.

Multimedia-mezuak bidaltzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Mensajería** → **SMS/MMS**.
2. Sakatu **Menú** → **Nuevo** → **MMS**.
3. Idatzi hartzailearen zenbakia edo sakatu <Menú> → **Agregar destinatarios** kontaktu bat hautatzeko.



CC eta **CCO** eremuak **Para** eremuaren gainean daude.

4. Joan behera eta idatzi mezuaren gaia.
5. Joan behera eta idatzi bidaltzailearen izena.

6. Multimedia-objektu bat eransteko, sakatu <Menú> → **Adjuntar** → objektu-mota. Multimedia-objektu bat eransteko, sakatu <Menú> → **Agregar** → objektu-mota.
7. Sakatu <Enviar> mezua bidaltzeko.

Posta elektronikoko kontu bat sortzea

Mezu elektronikoa bidali edo jaso aurretik, posta-kontu bat sortu behar duzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Mensajería** → **Configurar correo**.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta sakatu <Siguiente>.
3. Kontu elektronikoa bat eskuz konfiguratzeko, desautatu **Intentar obtener configuración correo automáticamente desde Internet** aukeraren ondoan dagoen egiaztatze-laukia.
4. Sakatu <Siguiente>.
5. Hautatu posta elektronikoa zerbitzuaren hornitzaile lehenetsia eta sakatu <Siguiente>.
6. Idatzi zure izena eta sakatu <Siguiente>.
7. Idatzi sarrerako mezu elektronikoen zerbitzaria, hautatu kontu-mota eta sakatu <Siguiente>.
8. Idatzi erabiltzaile-izena eta sakatu <Siguiente>.
9. Idatzi irteerako mezuen zerbitzaria eta sakatu <Siguiente>.

10. **Enviar y recibir automát.** aukeran, hautatu gailua zer maiztasunekin konektatuko den zerbitzarira mezu elektronikoak jaso diren egiaztatzeko (beharrezkoa bada).
11. Sakatu <**Finalizar**>.

Mezu elektronikoak bidaltzea

1. Hasierako pantailan, hautatu **Inicio** → **Todos programas** → **Mensajería**.
2. Hautatu posta elektronikoko kontu baten izena.
3. Sakatu <**Menú**> → **Nuevo**.
4. Idatzi helbide elektronikoa **Para** eremuan, edo sakatu <**Menú**> → **Agregar destinatario** kontaktua hautatzeko.



CC eta **CCO** eremuak **Para** eremuaren gainean daude.

5. Joan behera eta idatzi mezuaren gaia.
6. Joan behera eta idatzi bidaltzailearen izena.
7. Datu atxikiak eransteke, sakatu <**Menú**> → **Insertar** → atxikitzeko dokumentu-mota bat.
8. Sakatu <**Enviar**> mezua bidaltzeko.

Posta elektronikoko zerbitzari bateko mezu elektronikoak berreskuratzea

Interneteko zerbitzari-hornitzaile batetik edo VPN konexio baten bidez mezu elektronikoak berreskuratu aurretik, posta elektronikoko kontu bat sortu behar duzu.

Komunikazioa

Outlook-en zure kontutik mezuak berreskuratzeke, ikus "Datuak sinkronizatzea." ► 50. or.

1. Hasierako pantailan, hautatu **Inicio** → <**Todos programas**> → **Mensajería**.
2. Hautatu posta elektronikoko kontu baten izena.
3. Hautatu <**Menú**> → **Enviar y recibir**.

Mezuak ikustea

Leku berean dauden testu- eta multimedia-mezu guztien karpetaan sar zaitezke; baita posta elektronikoko mezu guztietan ere.

Mezuak ikusteko:

1. Hasierako pantailan, hautatu **Inicio** → **Todos programas** → **Mensajería**.

2. Hautatu **SMS/MMS** edo posta elektronikoko kontu baten izena.

Hautatutako kontuaren sarrerako postontzia irekiko da.



Posta elektronikoaren eduki guztia deskargatzeko, sakatu <**Menú**> →

Descargar mensaje.

Mezu elektronikoetan atxikitako datuak ikustea edo gordetzea



Posta elektronikoko datu atxikiak gailua kalte dezaketen birusak eduki ditzakete.

Babesteko, ireki fitxategiak baldin eta bidaltzailea konfiantzazkoa bada bakarrik.

Fitxategi erantsi bat bistaratzeko:

1. Irekita dagoen mezu elektronikoa batetik, joan atxikitako fitxategira eta sakatu erdiko tekla deskargatzeko.
2. Sakatu erdiko tekla atxikitako fitxategia irekitzeko, eta, ondoren, <Abriir>.

Fitxategia dagokion aplikazioarekin irekiko da.

Fitxategi erantsi bat gordetzeko:

1. Irekita dagoen mezu elektronikoa batetik, joan atxikitako fitxategira eta sakatu erdiko tekla deskargatzeko.
2. Sakatu erdiko tekla atxikitako fitxategia irekitzeko, eta, ondoren, sakatu <Menú> → **Guardar como...**
3. Idatzi fitxategiaren izena eta hautatu zer memoriatan gordeko den, eta sakatu <Guardar> → <Aceptar>.

Mezu-aukerak

Testu-mezen aukerak

Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes >Más...> → <Opciones de envío de SMS>, aukera hauek aldatzeko:

- **Selección de red:** sare-konexio mota bat aukera dezakezu: **CS preferido** (GSM) edo **PS preferido** (GPRS), sarearen arabera.
- **Periodo de validez:** mezuak baliozkoak izateko iraupena defini daiteke; zehaztutako epean mezuak ezin badira entregatu, ezabatu egingo dira mezu-zentrotik.

Multimedia-mezuen aukerak

Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → Mensajería > → SMS/MMS → <Menú> → Opciones de MMS, aukera hauek aldatzeko:

- **Bidaltzeko aukerak**

Prioridad: mezuen lehenetasuna zehazteko aukera ematen du.

Período de validez: mezuak baliozkoak izateko iraupena defini daiteke; zehaztutako epean mezuak ezin badira entregatu, ezabatu egingo dira mezu-zentrotik.

Hora de envío: mezuak bidali aurretik zenbat denbora igaro behar den ezar daiteke.

Modo de creación: multimedia-mezuak sortzeko modua hauta dezakezu.

Tamaño: mezuek gehienez izan dezaketen tamaina aukeratu daiteke.

Ocultar dirección: helbidea bistaratu edo ezkutatu dezakezu.

Solicitar informe de envío: mezua entregatu denean jakinarazpena jasotzeko aukera ematen du.

Solicitar informe de lectura: mezua ireki denean jakinarazpena jasotzeko aukera ematen du.

- **Jasotze-aukerak**

Red local: sare lokalean zaudenean, zerbitzaritik mezu berriak berreskuratzeke modua defini daiteke.

Red itinerante: atzerrian beste sare bat erabiltzen ari zarenean, zerbitzaritik mezu berriak berreskuratzeke modua defini daiteke.

Rech. rem. Desconocido: bidaltzaile anonimoa duten mezuak onartzeko edo ez onartzeko aukera ematen du.

Informe permitido: mezua entregatu denean jakinarazpena bidaltzeko aukera ematen du.

Anuncio permitido: publizitate-iragarkiak onartu edo blokea ditzakezu.

Información permitida: informazio-mezuak jaso edo blokea ditzakezu.

- **Perfiles de MMS:** Sakatu <Menú> → **Crear** konexio bat sortzeko aukera hauetan sartzeko:

Nombre de perfil: profilarentzat izen bat sartzeko.

URL de MMSC: mezu-zentroaren URL helbidea idazteko.

Proxy: proxy zerbitzaria erabiltzeko.

Dirección: proxy zerbitzariaren IP helbidea idazteko.

Puerto: ataka-zenbaki bat hautatzeko.

GPRS: GPRS konexio bat ezartzeko.

- **Acercade:** bertsioari eta copyright-ari buruzko informazioa ikusteko.

Mezularitzako aukera orokorrak

Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Mensajería** → **SMS/MMS** edo posta elektronikoko kontuaren izena → <Menú> → **Herramientas** → **Opciones**, aukera hauek aldatzeko:

- **Bistaratzea:**

Mostrar fecha y hora en lista de mensajes: zerrendan mezua zer ordutan eta egunetan hartu den ikusteko.

Ordenar mensajes por: mezuak dataren, gaiaren, bidaltzailearen edo mezu-motaren arabera ordenatzeko.

Tras eliminar o mover un mensaje: mezu bat ezabatu edo mugitu ondoren mezuak nola ikusiko diren hautatzeko.

- **Bidaltzea**

Incluir copia del mensaje original en la respuesta: erantzuteko mezuari jatorrizkoaren kopia bat gehitzeko (mezu elektronikoetarako).

Guardar copias de los elementos enviados: bidalitako mezuen kopiak gordetzeko.

- **Sinadurak**

Seleccione una cuenta: sinadura bat erabiltzeko kontu bat hautatzeko.

Utilizar firma con esta cuenta:

hautatutako kontua erabiltzeko.

Incluir al responder y reenviar:

mezu bat erantzutean edo birbidaltzean sinadura bat eransteko.

Firma: sinadura bat ezartzeko.

- **Kontuaren konfigurazioa:**

Testu- edo multimedia-mezuetan:

Solicitar notificaciones de entrega:

mezua entregatu denean jakinarazpena jasotzeko.

Utilizar Unicode cuando sea necesario: mezuan Unicode erabiltzeko.

Mezu elektronikoetan:

- **Configurar correo:** posta elektronikoko kontu berri bat sortzeko
- **Segurtasuneko konfigurazioa**

Avisar antes de navegar a una URL o un vínculo a un archivo que no esté en mi dispositivo: web gune batera edo fitxategi-lotura batera konektatu aurretik alerta bat egiteko.

- **Beste zenbait**

Mostrar el selector de cuentas al abrir

Mensajería: Mensajería-n sartzean helbide elektronikoen izenak bistaratzeko.

Mostrar advertencia al eliminar mensajes de la lista de mensajes:

mezu bat ezabatzean ohar bat egiteko.

Ikas ezazu Windows Media, kamera, administratzailea, bideo-errezuzitzailea, Adobe® Flash® Lite® eta ahots-oharrak erabiltzen.

Windows Media

Windows Media-rekin musika- eta bideo-fitxategiak erreproduzi ditzakezu.

Gailura fitxategiak gehitzea

Musika- eta bideo-fitxategiak gehitu ditzakezu Internetetik deskargatuta, ActiveSync bidez ekipo batetik transferituta (ikus Datuak sinkronizatzea ► 50. or.) edo memoria-txartel batetik.

Multimedia-liburutegira fitxategiak gehitzea

1. Gehitu fitxategiak gailura.
2. Hasierako pantailan hautatu < **Inicio** → **Todos programas** → **Windows Media**.
3. Sakatu < **Menú** > → **Actualizar biblioteca**.
4. Amaitutakoan, sakatu < **Listo** >.

Multimedia-fitxategiak erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan hautatu **Inicio** → **Todos programas** → **Windows Media**.
2. Hautatu multimedia-liburutegi bat.

- Joan fitxategira eta sakatu <**Reproducir**>.
- Erreproduzitzen ari dela, erabili aukera hauek:

Tekla	Funtzioa
Erdiko tekla	Erreprodukzioa gelditzeko edo berrabiarazteko.
Nabigazio-tekla (ezkerrera)	Aurreko fitxategiraino atzera egiteko.
Nabigazio-tekla (eskuinera)	Hurrengo fitxategiraino aurrera egiteko.
Bolumen-tekla	Bolumena igotzeko edo jaisteko.

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

- Hasierako pantailan hautatu <**Inicio**> → **Todos programas** → **Windows Media**.
- Hautatu multimedia-liburutegi bat.
- Joan fitxategira eta sakatu <**Menú**> → **Poner en cola**.
- Egin berriro 3 urratsa fitxategi gehiago gehitzeko.
- Sakatu <**Menú**> → **Reproductor**.
- Erreprodukzio-zerrenda gordetzeko, sakatu <**En curso**> → <**Menú**> → **Guardar lista de reproducción**.
- Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzako izen bat, eta sakatu <**Listo**>.

Kamera

Argazki digitalak ateratzeko (jpg formatuan) edo bideoak grabatzeko (3gp formatuan) aukera ematen du.

Argazkia ateratzea

1. Hasierako pantailan, hautatu <Inicio> → <Todos programas> → **Cámara**.
2. Fokatu nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezkoak diren doiketak (ikus “Teklatua kamera moduan erabiltzea”).
3. Sakatu erdiko tekla argazkia ateratzeko.
4. Sakatu <Guardar> irudia gordetzeko.

Teklatua kamera moduan erabiltzea

Tekla	Funtzioa
1	Bideokameraren modura igarotzeko.
2	Argazkien modua aldatzeko.
3	Irudiaren neurria aldatzeko.
4	Irudiaren kalitatea aldatzeko.
5	Zurien balantzeen modua aldatzeko.
6	Argazkia atera aurretik denbora-tarte bat ezartzeko.
7	Efektua aldatzeko.
8	Maskara dibertigarriak ezartzeko.
9	Gaueko ateratzeko modua aktibatzeko.

Tekla	Funtzioa
0	Aukerak aldatzeko.
*	Argazkia ateratzeko modua aldatzeko.
#	Bistaratzeko modua aldatzeko

Argazkiak ikustea

1. Kameraren hautagailuan, sakatu <Álbum>.
2. Joan argazki batera, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Bideo bat grabatzea

1. Hasierako pantailan, hautatu <Inicio> → <Todos programas> → Cámaras.
2. Sakatu [1] bideokamera irekitzeko.

3. Fokatu nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezkoak diren doiketak (ikus "Teklatua bideokamera moduan erabiltzea").
4. Sakatu erdiko tekla grabazioa hasteko.
5. Amaitzean, sakatu edo erdiko tekla grabazioa gelditzeko.
6. Sakatu <Guardar> bideoa gordetzeko.

Teklatua bideokamera moduan erabiltzea

Tekla	Funtzioa
1	Kameraren modura igarotzeko.
2	Grabazio-modua aldatzeko.
3	Markoaren tamaina aldatzeko.

Tekla	Funtzioa
4	Irudiaren kalitatea aldatzeko.
5	Zurien balantzeen modua aldatzeko.
6	Bideo bat grabatu aurretik denbora-tarte bat ezartzeko.
7	Efektua aldatzeko.
8	Audioa isilarazteko edo aktibatzeko.
0	Aukerak aldatzeko.
#	Bistaratzeko modua aldatzeko

Bideo bat erreproduzitzea

1. Bideokameraren hautagailuan, sakatu **<Álbum>**.
2. Joan bideo batera, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Edukien kudeatzailea

Edukien kudeatzailearekin gailuaren fitxategi eta karpeta guztiak ikus ditzakezu, eta haietara sar zaitezke.

Argazkiak ikustea

1. Hasierako pantailan, hautatu **<Inicio>** → **<Todos programas>** → **Administrador contenidos** → **Mis imágenes**.
2. Joan argazki baten miniaturazko ikuspegira, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Argazkiak ikusten dituzun bitartean ekintza hauek egin ditzakezu:

- Argazki batetik bestera igarotzeko, joan ezkerrera edo eskuinera.

- Zoomaren funtziorako, sakatu erdiko tekla, eta, gero, sakatu funtzio-tekla ezkerrean edo eskuinean. Zoom pantailatik irteteko, sakatu [↵].
- Argazkia editatzeko, sakatu <Menú> → **Editar imagen**.
- Argazki bat atzealdean edo linea-identifikatzaile gisa ezartzeko, sakatu <Menú> → **Establecer como** → aukera bat.
- Argazkiak aurkezpen gisa ikusteko, sakatu <Menú> → **Reproducir Pase de diapositi**

Bideo bat erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan, hautatu <Inicio> → <Todos programas> → **Administrador contenidos** → **Mi vídeo**.
2. Joan bideo baten miniaturazko ikuspegira, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Dokumentuak irekitzea

1. Hasierako pantailan, hautatu <Inicio> → <Todos programas> → **Administrador contenidos**.
2. Bilatu eta ireki dokumentuaren karpeta.
3. Joan dokumentura eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Fitxategi bat bidaltzea

1. Hasierako pantailan, hautatu <Inicio> → <Todos programas> → **Administrador contenidos**.
2. Bilatu eta ireki fitxategiaren karpeta.
3. Hautatu fitxategi bat.
4. Sakatu <Menú> → **Enviar** → bidaltzeko aukera bat.

Multimedia

- Multimedia-mezu gisa bidaltzeko, hautatu **como MMS**. Ikus “Multimedia-mezuak bidaltzea” ►15. or.)
- Posta elektronikoko mezu gisa bidaltzeko, hautatu **como correo electrónico**. Ikus “Mezu elektronikoak bidaltzea” ►17. or.
- Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez bidaltzeko, hautatu **vía Bluetooth**. Ikus “Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea” ►46. or.

Bideo-erreproduzitailea

Bideo-erreproduzitailea erabilia, bideo-fitxategiak erreproduzitu ditzakezu gailuaren memorian edo memoria-txartel batean.

Bideo-fitxategi bat erreproduzitzeko:

1. Hasierako pantailan sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Reproduct. de Vídeo**.
2. Joan bideo-fitxategira eta sakatu <Reproducir>.

Adobe® Flash® Lite™

Gailuak flash erreproduzitailea du, flash fitxategiak ikusteko (swf).



Adobe Flash Lite 2.1 bateragarria da Flash 7rako garatutako edukiekin. Fitxategiaren neurriaren eta memoriaren edukieraren arabera, baliteke gailuak flash fitxategi batzuk irekitzerik ez edukitzea.

Flash fitxategi bat ikusteko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Accesorios> → <Adobe Flash Lite>.
2. Bilatu eta ireki flash fitxategiaren karpeta.
3. Joan flash fitxategi batera, eta sakatu erdiko tekla.

Ahots-oharrak

Ahots-oharrak erabil ditzakezu ahots-oharrak eta soinu-fitxategiak grabatzeko eta erreproduzitzeko.

Ahots-mezuak grabatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> <Organizador> → <Notas de voz>.

2. Sakatu <Grabar> grabazioa hasteko.
3. Grabazioa amaitutakoan, sakatu <Detener>. Ahots-mezua automatikoki gordeko da.

Ahots-mezuak erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> <Organizador> → <Notas de voz>.
2. Joan ahots-mezu batera, eta sakatu erdiko tekla. Erreprodukzioa automatikoki hasiko da.

Ikas ezazu kontaktuak, egutegia, Office Mobile, ClearVue PDF, fitxategi-kudeatzailea eta atazak erabiltzen.

Kontaktuak

Ikas ezazu informazio pertsonala gordetzeko (izenak, telefono-zenbakiak eta helbideak) kontaktuen txartelak erabiltzen.

Outlook-en kontaktu berri bat sortzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Contactos** → <Nuevo> → **Contacto de Outlook.**
2. Idatzi kontaktuari dagokion informazioa.

3. Informazioa idatzi ondoren, sakatu <Listo> kontaktu-txartela gordetzeko.

SIMen kontaktu berri bat sortzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Contactos** → <Nuevo> → **Contacto SIM.**
2. Idatzi kontaktuari dagokion informazioa.
3. Informazioa idatzi ondoren, sakatu <Listo> kontaktu-txartela gordetzeko.

Kontaktu-txartel bat bilatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Contactos.**

2. Idatzi kontaktuaren izenaren letrak batzuk.
Letrak idazten ari zaren heinean, pantailan horiekin bat datozen kontaktuak bistaratuko dira.
3. Joan kontaktuaren txartelera, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.

Kontaktu-txartelak kopiatzea

Kontaktu-txartelak kopia ditzakezu gailutik SIM txartelera eta alderantziz. Outlook-eko kontaktu bat SIM txartelera kopiatzean, kontaktuaren izena eta telefono-zenbakia soilik gorde ditzakezu. Kontakutu-txartel bat kopiatzeko, sakatu <Menú> → **Copiar todo** → **SIM a teléfono** edo **Teléfono a SIM**.

Kontaktuari buruzko informazio osoa gordetzeko, sinkronizatu Outlook-eko kontaktuak zure PCarekin (ikus “Datuak sinkronizatzea”, ► 50. or.).

Kontaktu-txartel bat markaketa bizkorreko zenbaki bat esleitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Contactos**.
2. Joan kontaktu-txartelera, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.
3. Joan nahi duzun telefono-zenbakira, eta sakatu **Menú** → **Agregar a mercado rápido**.
4. Joan ezkerredera edo eskuinera teklatuaren esleipen-eremuan markaketa bizkorreko zenbaki bat ezartzeko (beharrezkoa bada).

5. Amaitutakoan, sakatu < **Listo** >.

Kontaktu-txartel bati irudi bat edo txirrintonu bat esleitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu < **Inicio** > → < **Todos programas** > → **Contactos** Outlook-eko kontaktu bat erabiltzeko.
2. Joan kontaktu-txartelera, eta sakatu erdiko tekla, irekitzeko.
3. Sakatu < **Menú** > → **Editar**.
4. Dei-tonu bat esleitzeko, joan **Tono person. timbre** funtziora, eta ezkerrera edo eskuinera, dei-tonu bat hautatzeko.

5. Irudi bat esleitzeko, joan **Foto** funtziora, eta ezkerrera edo eskuinera, irudi bat hautatzeko.
6. Amaitutakoan, sakatu < **Listo** >.

Egutegia

Erabil ezazu egutegia hitzorduez, urtebetetzez eta gainerako gertaerez oroitzeko.

Egutegiko gertaera bat sortzea

1. Hasierako pantailan, hautatu < **Inicio** > → < **Todos programas** > → **Organizador** → **Calendario**.
2. Hautatu < **Menú** > → **Nueva cita**.

3. Bete eremuak eta aldatu gertaeraren doikuntzak.
4. Amaitutakoan, sakatu < **Listo** >.

Egutegiaren ikuspegia aldatzea

1. Hasierako pantailan, hautatu < **Inicio** > → < **Todos programas** > → **Organizador** → **Calendario**.
2. Aldatu ezkerreko funtzio-tekla egutegiaren ikuspegia aldatzeko.

Gertaera baten alarma geldiaraztea

Aurretik konfiguratutako gertaera baten alarmak jotzean, sakatu < **Descartar** >.

Office Mobile

Office Mobile erabilia, gailuan Word, Excel eta PowerPoint fitxategiak ireki eta edita ditzakezu. Office 97 eta bertsio berriagoekin sortutako fitxategiak erabil ditzakezu.

Excel-eko liburu bat irekitzea eta editatzea

Excel-eko liburu bat ireki eta editatzeko:

1. Hasierako pantailan, sakatu < **Inicio** > → < **Todos programas** > → **Office Mobile** → **Excel Mobile**.
2. Bilatu Excel-eko fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.
3. Dokumentu baten zati bat hurbiltzeko edo urruntzeko, sakatu funtzio-tekla bat → < **Ver** > → **Zoom** → zoom-aukera bat.

4. Liburua ixteko, sakatu <Menú> → **Cerrar archivo**.

Excel-eko liburu bat editatzeko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Office Mobile** → **Excel Mobile**.
2. Bilatu Excel-eko fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.
3. Sakatu <Menú> → **Editar**.
4. Joan gelaxka batera, eta sakatu erdiko tekla, hautatzeko.
5. Idatzi balioak edo testua, eta sakatu < Listo >.
6. Errepikatu 4. eta 5. urratsak behar bestetan.
7. Liburua ixteko, sakatu <Menú> → **Archivo** → **Guardar como...** → < **Aceptar** >.

8. Idatzi fitxategiaren izena eta zer memoriatan gordeko den, eta sakatu < **Guardar** >.

Word-eko dokumentu irekitzea eta editatzea

Word-eko dokumentu bat ireki eta ikusteko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Office Mobile** → **Word Mobile**.
2. Bilatu Word-eko fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.
3. Dokumentu baten zati bat hurbiltzeko edo urruntzeko, sakatu funtzio-tekla bat → < **Ver** > → zoom-aukera bat.

Word-eko dokumentu bat editatzeko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Office Mobile** → **Word Mobile..**

2. Bilatu Word-eko fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.
3. Sakatu <Menú> → **Editar**.
4. Aldatu dokumentua.
5. Formatua aldatzeko, sakatu <Menú> → **Formato** → mota bat.
6. Dokumentua gordetzeko, sakatu <Menú> → **Archivo** → **Guardar como...**
7. Idatzi fitxategiaren izena eta zer memoriatan gordeko den, eta sakatu <Guardar>.

PowerPoint-eko aurkezpen bat irekitzea eta ikustea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Office Mobile** → **PowerPoint Mobile**

2. Bilatu PowerPoint-eko fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.
3. Biratu gailua ezkerrera, horizontalean gelditu arte.
4. Aurkezpena hasteko, sakatu <Menú> → **Presentación personalizada**.
5. Aurkezpena amaitzeko, sakatu <Finalizar>.

Oharrak sortzea eta editatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> **Office Mobile** → **One Note Mobile**.
2. Sakatu < Nueva >.
3. Sortu ohar bat.

Produktibitate personala

4. Formatua aldatzeko, sakatu <Menú> → **Formato** → mota bat. Formatu osoa ezabatzeko, sakatu <Menú> → **Formato** → **Borrar todo**.
5. Irudiak edo ahots-oharrak gehitzeko, sakatu <Menú> → **Insertar imagen** edo **Insertar grabación**.
6. Oharra gordetzeko, sakatu <Listo>.

ClearVue PDF

ClearVue PDF erabilia, PDF dokumentuak ireki eta ikus ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Inicio** → **Todos programas** → **ClearVue PDF**.
2. Sakatu <Archivo> → **Abrir**.
3. Bilatu PDF fitxategi bat, eta hautatu fitxategiaren izena, irekitzeko.

4. Dokumentu baten zati bat hurbiltzeko edo urruntzeko, sakatu funtzio-tekla bat → <Zoom> → zoom-aukera bat.

Informazio gehiago eskuratzeko, sakatu <Archivo> → **Ayuda**.

Zereginak

Tareas funtzioarekin egiteke dituzun zereginen funtzioak eta oharrak sor ditzakezu.

Zeregina sortzea

1. Sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Organizador Tareas**.
2. Sakatu <Menú> → **Nueva tarea**.
3. Idatzi zereginaren xehetasunak.
4. Amaitutakoan, sakatu <Listo >.

Zeregin bat bete dela adierazteko

Zeregin bat amaitzean, itzuli **Tareas** funtzioaren pantailara, joan zereginaren izenera, eta sakatu <**Completar**>. Zeregin bat bete dela adieraztean, ez duzu jasoko zeregin horretarako programatutako oharrik.

Fitxategi-administratzailea

Fitxategi-administratzailea erabilia, gailuko fitxategi eta karpeta guztiak aztertu ditzakezu. Hasierako pantailan, hautatu <**Inicio**> → <**Todos programas**> → **Administrador archivos**.

Sakatu <**Menú**> karpeta eta fitxategien izenak aldatzeko, ezabatzeko edo editatzeko.

Ikas ezazu Internet Explorer, Windows Live, Messenger, RSS irakurgailua eta Podcast erabiltzen.

Internet Explorer

Erabil ezazu Internet Explorer web guneak arakatzeko, eta hauta itzazu gogokoen dituzun web guneak.

Web gune batean nabigatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Internet Explorer**.
2. Web orri batera sartzeko:
 - Sakatu <Menú> → **Favoritos** eta hautatu gogoko bat.

- Sakatu **Menú** → **Barra de direcciones** web helbide bat sartzeko, eta sakatu <Ir>.
- Sakatu <Menú> > **Historial** historiako web helbide bat hautatzeko.

3. Web konexioa ixteko, hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> > **Accesorios** > **Admin. llamadas datos**.

Joan amaitu nahi duzun konexiora eta sakatu erdiko tekla.



Konexioa amaitu dela berresteko, sakatu [ⓘ] → **Admin. inalámbrico** → **Teléfono** → erdiko tekla, haririk gabeko funtzioak desaktibatzen. Sakatu berriro erdiko tekla haririk gabeko funtzioak aktibatzen.

Gogoko bat gehitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → Internet → Internet Explorer.
2. Joan nahi duzu web gunera, eta sakatu <Menú> → **Agregar a Favoritos**.
3. Idatzi gogokoaren izena eta helbidea (beharrezkoa bada).
4. Aldatu gogokoa gehituko duzun karpeta (beharrezkoa bada).
5. Sakatu <Agregar>.

Nabigatzailearen doikuntzak aldatzea

Nabigatzailean, sakatu <Menú> → **Herramientas** → **Opciones**.

- **General:** nabigatzailearen soinua eta pantaila konfiguratzeko.

- **Página de inicio:** web helbide bat hasierako orri gisa konfiguratzeko.
- **Conexiones:** konexio-ezarpenak konfiguratzeko.
- **Memoria:** aldi baterako fitxategietarako, cookietarako eta historiarako erabiltzen ari den memoriaren informazioa ikusteko.

Windows Live

Windows Live erabilia, lagunekin harremanetan egon zaitezke, eta, gainera, Interneten informazioa azkar izango duzu eskura.

Hasierako pantailatik Windows Live hasteko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → Internet → **Windows Live**.

2. Joan **Iniciar sesión en Windows Live** atalera, eta sakatu erdiko tekla.
3. Segi pantailako jarraibideei, instalazioa amaitzeko.

Messenger

Messenger erabilia, beste erabiltzaileentzat erabilgarri egon zaitezke, eta zure posta elektronikoa egunean egon, etengabe Internetera konektatuta egon beharrik gabe. Mezu berri bat jasotzean edo Interneteko zerbitzuetara sartu nahi duzunean, konexioa berrezarriko da.

Messenger konfiguratzea eta saioa hastea

1. Hasi saioa Windows Live-n (ikus aurreko atala).

2. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Messenger**.
3. Joan ezkerrera edo eskuinera saioa hasteko egoera bat hautatzeko.
4. Sakatu <Iniciar ses.>.

Messenger bidez solasean aritzea

1. Messenger pantailan, bilatu eta hautatu kontaktu baten izena, eta, gero, sakatu <Enviar MI>.
2. Idatzi mezu bat pantailaren behealdeko testu-eremuan, eta sakatu <Enviar>.
3. Elkarrizketan ekintza hauek egin ditzakezu:
 - Keinu-ikonoak sartu: sakatu <Menú> → **Agregar icono gestual**.

- Kontaktu bat elkarrizketara gonbidatu: sakatu <Menú> → **Opciones** → **Agregar participante**.
 - Fitxategi bat transferitu: sakatu <Menú> → **Enviar** → fitxategi-mota bat → fitxategi bat.
 - Ahots-mezu bat grabatu eta bidali: hautatu **Mens. voz**, grabatu ahots-mezua eta sakatu <Enviar>.
 - Kontaktu-zerrendatik elkarrizketara joan, eta alderantziz: joan zaitez ezkerrera edo eskuinera.
4. Elkarrizketa amaitzeko, sakatu <Menú> → **Finalizar conversación**.

RSS irakurgailua

Ikas ezazu RSS irakurgailua erabiltzen, zure gogoko web guneetako azken albisteak irakurtzeko.

Iturriak sortzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Lector de RSS**.
2. Sakatu <Menú> → **Editar** → **Nueva carpeta** (beharrezkoa bada).
3. Sakatu <Menú> **alimentación** → **Editar** → **Nueva**.
4. Idatzi RSS iturri baten helbidea, hautatu zer karpetatan gehitu nahi duzun RSS iturria, eta sakatu < **Aceptar** >.

Iturriak inportatzea

Iturriak gehitu ditzakezu OPML fitxategiak inportatuta.

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Lector de RSS**.

2. Sakatu <Menú> → **OPML** → **Importar** → **Seleccionar archivo OPML** edo **Introduzca OPML URL**.
3. Bilatu OPML fitxategi bat edo idatzi OPML fitxategi baten helbidea.

RSS iturriak irakurtzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Lector de RSS**.
2. Joan iturri batera eta sakatu <Actualizar> edukirik berriena eskuratzeko.
3. Eguneraketa amaitzean, sakatu <Hecho>.
4. Sakatu erdiko tekla iturri eguneratu bat hautatzeko.

Iturri berriak bilatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Lector de RSS**.
2. Sakatu <Menú> → **Búsqueda de alimentación**
3. Sartu gako-hitz bat eta sakatu <Buscar>.

Podcast-ak

Erabili Podcast-ak web gune batetik audio- edo bideo-fitxategiak deskargatu eta gailuan erreproduzitzeko.

Podcast bateko harpidetza egitea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → **Internet** → **Podcast** → **Podcasts**.

2. Sakatu <Menú> → **Suscribirse a** → **Podcast**.
3. Idatzi web helbide bat (URL) eta sakatu **Suscribirse** → <Sí>.
4. Segi pantailako jarraibideei, instalazioa amaitzeko.

Podcast bat bilatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> **Internet** → **Podcast** → **Podcasts**.
 2. Sakatu <Menú> → **Buscar Podcast**.
 3. Sartu gako-hitz bat eta sakatu <Buscar>.
- Gailuak lotura duten txostenak bilatuko ditu Interneten, eta emaitzak bistaratuko ditu.
4. Sakatu <Agrega> podcast zerrendara gehitzeko.

Podcast bat deskargatzea eta erreproduzitzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> **Internet** → **Podcast** → **Podcasts**.
2. Joan podcast batera, eta sakatu <Obtener> deskargatzeko.

Podcast-a automatikoki erreproduzituko da Windows Media-ren erreproduzitzailan.

Ikas ezazu gailutik eta gailura datuak transferitzen Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez edo Pcrako datu-kablearen bidez, eta sinkronizatu gailua ActiveSync bidez. Ikas ezazu sare- edo datu-konexioak konfiguratzeko Internetera edo zure sare pribatura konektatzeko.

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea

Bluetooth erabiltzeko gaituta dauden beste haririk gabeko gailu batzuekin konekta zaitezke 10 metroko (30 oin) distantzian. Hormek edo gailuen arteko beste oztopo batzuek haririk gabeko konexioa blokeatu edo galeraz dezakete.

Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes> → <Conexiones> → <Bluetooth> → <General>.
2. Sakatu <Menú> → <Activar Bluetooth>.
3. Beste gailu batzuek zurea aurkitu dezaten eta harekin konekta daitezen, sakatu <Menú> → <Activar visibilidad>.

Bluetooth-erako gaitutako beste gailu bat bilatzea eta harekin konektatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes> → <Conexiones> → <Bluetooth> → <General>.

2. Hautatu **Añadir nuevo dispositivo...**

Gailuak Bluetooth-erako gaitutako gailuen zerrenda bilatu eta bistaratuko du.

3. Joan gailu batera, eta sakatu **<Siguiente>**.4. Bluetooth-aren PINa sartu eta sakatu **<Siguiente>**.

Bluetooth-erako gaitutako beste gailu batekin konektatzean, bi gailuek PIN bera erabili behar dute. Baliteke entzungailuek edo autorako esku libreko kitak PIN finkoa erabiltzea, esaterako, **0000**.

5. Sakatu **<Listo>**.**Datuak bidaltzea Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez**

1. Bilatu bidali nahi duzun elementua edo fitxategia.
2. Sakatu **<Menú>** → **Enviar** → **vía Bluetooth** edo **<Menú>** → **Enviar contacto** → **Transferir**.
3. Hautatu zerrendako gailu bat.

Datuak jasotzea Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez

1. Hasierako pantailan, sakatu **<Inicio>** → **<Todos programas>** → **Ajustes** → **Conexiones** → **Transferir**.
2. Hautatu **Recibir transferencias entrantes** aukeraren alboko egiaztatze-laukia.
3. Sakatu **<Listo>**.

COM ataka bat Bluetootharako konfiguraztea

Serieko profila onartzen duen Bluetooth gailu batera konektatzean, Bluetootharako COM ataka bat ezar dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes> → <Conexiones> → **Bluetooth C General**.
2. Sakatu <Menú> → **Puertos COM** → <Menú> → **Nuevo puerto saliente**.
3. Hautatu gailuaren izena, eta sakatu <Seleccionar>.
4. Hautatu COM ataka bat.
5. Hautatu **Conexión segura** aukeraren alboko egjiaztatze-laukia gailuen artean konexio segurua ezartzeko.
6. Sakatu <Listo>.

USB bidez konektatzea

USB konexiorako aurrez ezarritako ekintza bat ezartzea

Gailua PCrako datu-kablearen bidez ordenagailu batera konektatzen denean aurrez ezarritako ekintza bat egin dezan ezartzeko:

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes> → <Conexiones> → **USB**.
2. Konfiguratu USB modua lehetsi gisa (**ActiveSync** edo **Almac masivo**).
3. Sakatu <Listo>.
ActiveSync erabitzeko, ikus "Gailuaren sinkronizazioa".

Fitxategiak memoria-txartel batera transferitzea

1. Sartu memoria-txartel bat (ikus Bizkor hasteko gida).
2. Aldatu USB konexioa **Almac masivo**-ra (**Almac masivo** erabiltzeko, ikus “USB bidezko konexioa”)
3. Konektatu gailua ordenagailura, PCrako datu-kablearen bidez.
4. Ordenagailuan leihoa bistaratzean, hautatu **Abrir carpeta para ver archivos**.
5. Transferitu fitxategiak memoria-txarteletik eta memoria-txartelera.
6. Amaitutakoan, deskonektatu gailua ordenagailutik.

Gailua sinkronizatzea

ActiveSync erabilia, gailua ekipo batekin sinkronizatu, datuekin segurtasun-kopiak egin, eta leheneratu egin ditzakezu.

Zure ekipoan ActiveSync instalatzea

Datuak sinkronizatu aurretik, ActiveSync instalatu behar duzu, emandako CD-ROMa erabilia edo Microsoft-en web gunetik ([http:// www.microsoft.com](http://www.microsoft.com)).

Emandako CD-ROMa erabilia ActiveSync instalatzeko:

1. Sartu CD-ROMa zure PCan.
2. Segi pantailako jarraibideei, instalazioa amaitzeko.

3. Instalazioa amaitzean, jarraitu sinkronizazioaren konfiguraziorako morroiaren pantailan agertuko diren jarraibideak, gailua zure PCarekin konektatzeko eta datuak partekatzeko elkarte bat sortzeko.

Konektatu gailua ekipora, PCrako datu-kablearen bidez.

1. Hasierako pantailan, sakatu <Inicio> → <Todos programas> → <Ajustes> → <Conexiones> → <USB>.
2. USB konexioaren ordeztan **ActiveSync** jarri, eta sakatu <Listo>.
